

ERASMUS+ LAGUNTZAK ESLEITZEKO DEIALDIA

Hasierako Lanbide Heziketako eta Erdi Mailako ikasleen mugikortasuna · 2026-2027
ikasturtea

Basauri, 2026ko irailaren 9a

IKASLAN Mobilityk Erasmus+ laguntzen deialdia egiten du 2026-2027 ikasturterako, IKASLAN sareko Hasierako Lanbide Heziketako eta Erdi Mailako ikasleek atzerrian prestakuntza-mugikortasunak egin ditzaten.

Mugikortasunak **Erasmus+ KA121-VET** programaren esparruan egingo dira.

1. Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea da 2026-2027 ikasturtean Dual Orokorra atzerrian egiteko Erasmus+ laguntzak esleitzeko prozedura ezartzea.

2. Beka kopurua

2026-2027 ikasturterako, IKASLAN Mobilityk guztira **235 beka** ditu Hasierako Lanbide Heziketako eta Erdi Mailako ikasleek Dual Orokorreko mugikortasunak egiteko.

Laguntzen helburua atzerriko mugikortasunak eragindako gastuak ordaintzen laguntzea da, eta ez dute zertan gastu horien zenbateko osoa estali, laguntzen baldintza espezifikoetan ezarritakoaren arabera.

3. Ikastetxe hartzaileak

IKASLAN sareko ikastetxeek eskatu ahal izango dituzte laguntza hauek, baldin eta deialdi honetako mugikortasunetan parte har dezaketen ikasleak badituzte.

Ikastetxe bakoitzak eskatzen duen beka kopurua IKASLAN Mobilityk ezarritako prozeduraren bidez jakinaraziko du.

4. Bekak ikastetxeei esleitzea

Bekak ikastetxe eskatzaileen artean banatzeko, IKASLAN Mobilityk ezarritako irizpideak aplikatuko dira, ikastetxe bakoitzak dituen heziketa-zikloen kopurua erreferentziazat hartuta.

Esleipena egin ondoren, ikastetxe bakoitzari zenbat beka dagozkion jakinaraziko zaio.

5. Ikasleen hautaketa

Bekak esleitu ondoren, ikastetxe bakoitzak ikasleak hautatzeko barne-prozesua egingo du, esleitutako plaza kopurua betetzeko.

Hautagaitzak baloratu aurretik, ikastetxeak egiaztatu beharko du IKASLAN Mobilityk ezarritako aurretiazko baldintzak betetzen dituztela. Baldintza horiek ez dira puntuatzen; hautagaitza balorazio-fasera igaro daitekeen zehazten dute.

Baldintza horiek betetzen dituzten hautagaitzak IKASLAN Mobilityk ezarritako ikasleak hautatzeko irizpide komunak arabera baloratuko dira. Irizpide horiek deialdi honekin batera argitaratuko dira.

Irizpide horiek aplikatzearen ondorioz, ikastetxe bakoitzak esleitutako beka kopuruari dagokion ikasle kopurua hautatuko du.

6. Hautatutako ikasleen erregistroa eta dokumentazioa

Hautaketa-prozesua amaitu ondoren, ikastetxe bakoitzak IKASLAN Mobilityren Odoo plataforman erregistratu beharko ditu ezarritako baremazioa aplikatu ondoren esleitutako bekek lortu dituzten ikasleak.

Era berean, parte-hartzaile bakoitzari eskatutako dokumentazioa plataformara igo beharko da.

Epea: 2026ko urriaren 19a

7. Laguntzen ezaugarriak

Laguntzen baldintzak eta ezaugarriak deialdi honekin batera argitaratutako “Dual Orokorra Europan 2026-2027 – Erasmus+ Europako Programa KA121” dokumentu espezifikoan jasotzen dira.

Mugikortasuna kudeatzeko ikasleek aurkeztu beharreko dokumentazioa ere dokumentu horretan zehazten da.

8. Aplikatu beharreko dokumentazioa

- Ikasleen aurretiazko baldintzak.
- Ikasleak hautatzeko irizpide komunak.
- Dual Orokorra Europan 2026-2027 – Erasmus+ Europako Programa KA121.

9. Argitalpena eta ondorioak

Deialdi hau eta hari lotutako dokumentazioa IKASLAN Mobilityk ezarritako kanalen bidez argitaratuko dira.

Deialdi hau 2026-2027 ikasturteari dagozkion mugikortasunei aplikatuko zaie.